



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

OHIKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

Bilera- zenbakia: 2025ICGO0021

Eguna: 2025-12-23

Ordua: 19:20 -19:30

Tokia: Alkatetza

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez (3. aztergaiari).....Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden OteroAstigarragako EH Bildu
- Maria Otaegi VelezAstigarragako EAJ- PNV

Bertaratu ez direnak

- Patxi Suarez Perez Udal talde euskal sozialistak

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Aztergaiak

- 1.- 2025eko abenduaren 3ko akta onartzea.
- 2.- Norberto Almandoz plazako azoka txikirako estalki bizia eraikitzeako kontratazio-espediterearen 1. lotea (lan orokorrak).
- 3.- Norberto Almandoz plazako azoka txikirako estalki bizia eraikitzeako obra-kontratuan bioeraikuntzako irizpidekin egin beharreko lanen kontratazio-espediterea.
- 4.- Taxi zerbitzuaren Donostialdeko araubide bereziko eremuko administrazio arteko hitzarmenaren 1. gehigarria.
- 5.- Garapenerako lankidetzaren programaren dirulaguntzak.
- 6.- Dirulaguntza izenduna Udalbiltza Partzuergoari.
- 7.- Informazio, galdera eta eskariak.

Esan- eginak eta erabakiak

1.- 2025eko abenduaren 3ko akta onartzea.

Maria zinegotzia abstenitu egin da aurreko bileran egon ez zelako. Gainerakoek, berriz, alde bozkatu dutenez akta onartu egin da.

2.- Norberto Almandoz plazako azoka txikirako estalki bizia eraikitzeako kontratazio-espediterearen 1. lotea (lan orokorrak).

Adierazi da aztergai hau eta hurrengo erlazionatuta daudelako, izan ere, obra-proiektu bereko lote ezberdinak esleitzeko espeditereak baitira biak.

Azaldu da kontratazio espeditere honetara enpresa bakarra aurkeztu dela - GOIZUETAKO ESTRUCTURAS SL enpresa – eta C kartazala goizean ireki duela kontratazio-mahaiak, baina aurkeztutako eskaintza ekonomikoa gehineko lizitazio-prezioa gaintzen duenez, alkatearen dekretuz ebatzi dela – kontratazio



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

mahaiak horrela proposatuta – enpresa kontratazio-prozesutik kanpo uztea eta lizitazioa hutsik jotzea.

3.- Norberto Almandoz plazako azoka txikirako estalki bizia eraikitzeako obra-kontratuan bioeraikuntzako irizpidekin egin beharreko lanen kontratazio-espeditentea.

Alkateak azaldu du espediente hau premiaz izapidetu bazen, izan zela aurreko lizitazioa hutsik jo zelako (Norberto Almandoz plazako azoka txikirako estalki bizia eraikitzeako kontratazio-espeditentearen 2. lote bezala izapidetu zena) eta ezinbestekoa zelako obra-proiektu horren bi loteak aldi berean esleitzea eta gauzatzea. Baina orain beste lotea izan denez hutsik jo dena, lote hau esleitzea ez duela zentzurik, bi loteak esleitu ezean ezin delako obra gauzatu. Hori horrela proposatu du akordio hau hartzea:

Lehena.- Kontratuaren esleipena mahai gainean uztea, ikusi arte obra-proiektuaren beste lotearen (“Azoka txikirako Estalki Bizia Norberto Almandoz Plazan. Estalki bizia, komun lehor, eta biltegia, eta euri uren biltegiatzea Norberto Almandoz Plaza, Astigarraga. Gauzatze Proiektua” izeneko obra-proiektuaren lan orokorrak) kontratazioarekin zer gertatzen den. Proiektu horren bi loteak esleitzea eta gauzatzea ezinbestekoa baita, azoka estaltzeko estalki bizia eraikitzeko.

Bigarrena.- Akordio honen berri ematea EGURPE, KOOP. ELK. TXIKIA enpresari.

Jarraian bozkatzera ekin zaio eta proposamena aho batez onartu da.

4.- Taxi zerbitzuaren Donostialdeko araubide bereziko eremuko administrazio arteko hitzarmenaren 1. gehigarria.

Alkateak azaldu ondoren hitzarmenaren proposatzen den aldaketa egitearen zergatik eta horren nondik norakoak, Lurralde batzordearen irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehena.- Donostia, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Errenteriako Udalek, Taxi zerbitzuaren Donostialdeko araubide bereziko eremurako, sinatutako administrazio arteko hitzarmenaren 1. gehigarria onartzea.

Bigarrena.- Alkateari baimena ematea hitzarmena eta akordioa gauzatzeko beharreko agiri guztiak sinatzeko.

Jarraian bozkatzera ekin zaio eta irizpena aho batez onartu da.

5.- Garapenerako lankidetza programaren dirulaguntzak.

Alkateak Ongizate batzordearen irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Atal bakarra.- Jarraian adierazitako Garapenerako lankidetza programaren dirulaguntzak onartzea:

- **GARABIDE KULTUR ELKARTEA:** 3.981 € (SENTSIBILIZAZIOA)
Hezkuntzan mapuzugunaren transmisioa indartzeko: Irakasleentzako formazio eta ikerketa proiektua”.
- **BAKERAKO LANKIDETZA BATZARREA:** 3.750 € (LARRIALDIA)
“Respuesta de emergencia y de protección de los derechos de la población frente a una crisis humanitaria sin precedentes en la Franja de Gaza”.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

- **ASOCIACION SALVAMENTO MARITIMO: 4.500 € (LARRIALDIA)**
"Gerratik, klima-aldaketatik eta muturreko pobreziatik ihesi doazen migratzaileen eta errefuxiatuen giza eskubideak erreskatatzeko, laguntza humanitarioa emateko eta defendatzeko proiektua, Mediterraneo erdialdeko ibilbidean barrena - Aita Mari 2025".
- **FUNDACION BONAL: 4.250 € (LARRIALDIA)**
"Continuación de la Ayuda de Emergencia para la protección y supervivencia de población refugiada".
- **AMIGAS DEL SAHARA: 3.500 € (LARRIALDIA)**
"Sahararen aldeko Euskal Karabana: PIZTU ITXAROPENA"

Jarraian bozkatzera ekin zaio eta irizpena aho batez onartu da.

6.- Dirulaguntza izenduna Udalbiltza Partzuergoari.

Alkateak dirulaguntzaren nondik norakoak azaldu ditu, adierazi du bi urteko programa dela, 2025ean Astigarragan antzezlan bat sortu dela eta 2026an horren emanaldiak egingo direla Euskal Herritik barrena. Eta Naroa zigotziak gaineratu du estrenaldia Astigarragan izango dela urtarrilaren 17an.

Ondoren, alkateak Antolaketa Batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehena.- Udalbiltza Partzuergoari, 2025. urtean 13.042,46 euroko dirulaguntza ematea, "Geuretik sortuak" proiektuaren baitan Zelako Kultur Ideiak antzerki-konpainiak "Izeba Txirrita" obra sortzeko. Zehazki diruz lagunduko dira: kulturgileek Astigarragan egindako hiru asteko egonaldi gastuak, kulturgileen lan-ordainaren kostua, sormen lanak garatzeko gastuak, memoriari buruzko obra horretarako herriko pertsonaia historikoa identifikazio lanen kostua eta ekoizpen gastuak.

Bigarrena.- Dirulaguntza bideratzeko, ordainketa-era eta hartutako konpromisoak arautuko duen hitzarmena onartzea.

Hirugarrena.- Ordainketa 1 0100.421.01.942.00 2025 kontu sailaren kargu egitea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio eta irizpena aho batez onartu da.

7.- Informazio, galdera eta eskariak

Ez da egon.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

Astigarragan, 2025eko abenduaren 23an.

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko udal- idazkaria



